



**GIPUZKOAKO TXAPELKETA
LURRALDEKO 1. MAILA, SENIORRAK**

LEHIAKETA-ARAUDIA

I.- LEHIAKETA-EGUNAK

Lehiaketa hau denboraldian ofizialaren barruan egingo da, Ohiko Batzarrak onartutako egutegiari jarraituz.

Euskal Federazioaren Txapelketan sartzeko faserako, federazio horrek ezarritako egutegia eta araudiak hartuko dira kontuan.

II.- PARTE HARTUKO DUTEN TALDEAK

2024-2025 denboraldiko txapelketan **12 talde** hauek hartuko dute parte:

- **Ikus 2024-25 Gipuzkoako Txapelketa jokatzeko kirol-eskubideak dituzten taldeen eranskina**

III.- PARTE HARTZEKO IRIZPIDEAK, UKO EGINEZ GERO

Talde batek garaiz eta behar bezala parte hartzeari uko egiten badio, honako irizpide taula honi jarraituko zaio haren lekua nork bete beharko duen zehazteko:

1. Maila automatikoki galdu zuen taldea. Bi taldek edo gehiagok eskubideok badituzte, lehenik eta behin txapelketan lortutako sailkapen ordena hartuko da kontuan, Partida eta Lehiaketa Araudian adierazitako irizpideen arabera.
2. Aurreikusi gabeko kasuetan, Gipuzkoako Eskubaloi Federazioko Kirol Diziplinako Batzordeak ebaziko du.

III.- LEHIAKETA-FORMULA

Txapelketa honela jokatu da:

Lehen fasea:

Liga partida bikoitzera, multzo bakarrean.
Fase honetako txapelduna zuzenean 2. maila Nazionalera igotzeko faserako sailkatuko da.
Fase honetako azken bi sailkatuak zuzenean Lurraldeko 2. mailara jaitsiko dira, goragoko ligetako igoera eta jaitsieren arabera.

Bigarren fasea:

2.etik 5.era sailkatutako taldeek play-offa jokatu dute igoerako bigarren postua lortzeko:

1. jardunaldia:

1. finalerdia: lehen faseko 2. sailkatua vs lehen faseko 5. sailkatua.
2. finalerdia: lehen faseko 3. sailkatua vs lehen faseko 4. sailkatua.

2. jardunaldia:

Finala: 1. finalerdiko irabazlea vs 2. finalerdiko irabazlea
Final honetako txapelduna 2. maila Nazionalera igoko da.

IV.- NORGEHIAGOKEN EGUNAK ETA ORDUTEGIAK

Txapelketako partida guztiak Egutegi Ofizialean aurreikusitako egunetan jokatu dira, ezinbesteko arrazoengatik edo Diziiplina Batzordeak hala erabakita atzeratzen direnak izan ezik.

Partidak programatuta egongo dira, eta ordutegia eta data aldatzeko aukera izango dute, Lehiaketa Araudi Orokorrak **3.5 atalean** adierazitakoaren arabera. Diziiplina Batzordeak arau hori betetzen dela eta, bete ezean, **3.10 atalean** aurreikusitako zehapenak aplikatzearen direla bermatuko du, eta horren erantzule izango da.

VI.- PARTE HARTZEN DUTEN JOKALARIAK

Lurralde mailako gizonezkoen senior lehiaketetan, lizentzia behar bezala izapidetuta daukaten eta senior adinean dauden gizonezko jokalariek parte hartu ahal izango dute (**2006. urtera arte jaiotakoak**), bai eta klub eta/edo filial bereko jokalariz gazteek ere, baldin eta Lurralde Federazio honek izapidetutako lizentzia badute, horretarako ezarritako araudiarekin bat etorritik.

Gipuzkoako Txapelketa hasterakoan, taldeek gutxienez **hamabi (12) eta gehienez hogeita hiru (23) jokalariz osatutako kupo nagusia eduki beharko dute.**

Senior gizonezkoen kategoria honetan, gehienez hamasei (16) jokalariz inskribatu ahal izango dira aktan, eta nahitaezkoa izango da hamar (10) jokalariren inskripzioa eta presentzia fisikoa. Gutxiago inskribatuz gero, GEFren Lehiaketa Araudian adierazitako zehapena ezarriko da.

LIZENTZIEN KUPO NAGUSIA

Gipuzkoako Txapelketa hasi baino lehen talde bakoitzak hamabi (12) lizentzia eduki beharko ditu izapidetuta gutxienez, eta hogeita hiru (23) gehienez; kontuan izan **gutxienez hiru 2002, 2003, 2004, 2005 eta 2006an** jaiotakoek dagozkienak izan beharko direla, euren taldearen fitxa dutelarik.

LIZENTZIEN KUPO GEHIGARRIA

- Gainera, taldeek senior mailako **2002, 2003, 2004, 2005 eta 2006an jaiotako zortzi** jokalariz nazional eduki ahal izango dituzte, ez izendunak, klub bereko senior maila baino beheragoko taldeetakoak, eta nahi adina neurketatan jokatzeko zerrendan egon ahalko dira.
- Zortzi jokalariz senior horietako bi **2001.** urtera arte jaiotako senior jokalariz izan daitezke, klub edo filial bereko senior maila baino beheragoko taldeetakoak, ez izendunak, eta nahi adina neurketatan jokatzeko zerrendan egon ahalko dira.
- Era berean, **2002tik 2006ra bitartean jaiotakoak ez diren izendunak ez diren seniorrez beheragoko mailako klub bereko taldeetako zortzi jokalariz nazional horietatik zortzi jubenilak izan daitezke (2007-2008an jaiotakoak)**, klub eta/edo filial bereko jubenil mailako talde batekoak. Jokalariz horiek aktan behar bezala izena eman eta senior mailako partida batean parte hartu ahal izateko, **federazio honetako Diziiplina Batzordearen akta aurkeztu beharko diete epailei, jokalariz-zerrenda baimen dezaten.** Beren klubeko eta/edo filialeko senior taldearekin parte hartzen duten jubenilek ez dute jubenil izaera galduko, eta **jardunaldi**

bakoitzeko bi partida jokatu ahal izango dituzte, partida edozein egunetan egiten dela ere.

- Gipuzkoako Senior Txapelketetako taldeen osaketa, bai kupo nagusikoa bai gehigarrikoa, lehiaketa amaitu baino **hiru aste lehenago** itxiko da.

Torneoak eta kopak: talde guztiek, **torneo eta kopetan, baimendutako zortzi (8) jokalar**i jubeni**l eduki ahal izango dituzte jokalar**i-zerrendan . Ez dira izendunak izango, eta jardunaldi bakoitzean bi partidatarako jokalar**i-zerrendan sartu ahal**ko dira, jokatzeko eguna edozein dela ere.

BALDINTZA OROKORRAK:

- Kupo gehigarriko jokalar**iak gehienez ere bi partidatarako jokalar**i-zerrendan sartu ahal**ko dira** kirol jardunaldi bakoitzean, jokatzeko eguna edozein dela ere.
- Seniorren kupo gehigarrian, **beheragoko mailako jokalar**iak **ezingo dira inola ere ordezkatu.**
- Talde batek norgehiagokaren mailatik behera jokatu ohi duten jokalar**iak aurkezten baditu,** epaileek jokalar**i horien izen-abizenak jaso beharko dituzte** partida-aktan. **Jubenilen kasuan, federazio honetako Dizi**plina Batzordearen akta-zenbakia jasoko da, jokalar**i-zerrenda hori baimentzen duena.**
- Atal hau kontuan hartuta, senior mailako taldeetan parte har dezaketen jokalar**ien "kupo gehigarria", alegia, klub bereko beheragoko mail**etako taldeetatik datozenen kupoa, ondoren azalduko dena izango da:

201ERA ARTE JAIOTAKO SENIORRAK (gehienez 2)	2002, 2003, 2004, 2005 eta 2006an JAIOTAKO SENIORRAK (gehienez 8)	JOK. JUBENILAK 2007-2008 (gehienez 8)	GUZTIRA
0	0	8	8
0	1	7	8
0	2	6	8
0	3	5	8
0	4	4	8
0	5	3	8
0	6	2	8
0	7	1	8
0	8	0	8
1	0	7	8
1	1	6	8
1	2	5	8
1	3	4	8
1	4	3	8
1	5	2	8
1	6	1	8

1	7	0	8
1	0	7	8
2	0	6	8
2	1	5	8
2	2	4	8
2	3	3	8
2	4	2	8
2	5	1	8
2	6	0	8

- **Kategoria honetan, lehiaketa berean ezingo dute izen bereko bi taldek edo gehiagok parte hartu.**
- **Ondorioz, klub batek Lurrealdeko 2. mailan dagoen talde bat badauka, ezin izango du mailaz igo, non eta Lurrealdeko 1. mailako bere taldea ez den Euskadiko Gizonezkoen Senior Txapelketara igotzen edo Lurrealdeko 1. mailako taldea kategoriaz jaisten.**

VII.- ENTRENATZAILEAK ETA ORDEZKARIAK

Talde guztiak nahitaez inskribatu behar dira aktan, eta partida guztietan entrenatzaile edo entrenatzaile-laguntzailea eduki beharko dute (ONARTUTAKO TITULUDUNA).

Talde batek Foru Aldundiak izapidetutako lizentzia erabiltzen badu, eskatutako titulazioa duela bermatu beharko du; hori egin ezean, jokalaria-zerrenda bidegabea izango da.

Horrez gain, antolatu behar dituen norgehiagoketan, **ZELAIKO ORDEZKARI** baten presentzia fisikoa eduki beharko du, eta berau aktan inskribatu.

Betebehar horiek bete ezean, GEFko Partida eta Lehiaketa Araudiak adierazitako zehapenak ezarriko dira.

VIII.- XEDAPEN GEHIGARRIAK

Gipuzkoako Gizonezkoen Lurrealdeko Lehen mailako Ligako arau espezifiko hauek **OHIKO BATZARRAK** onartutako **GIPUZKOAKO FEDERAZIOAREN TXAPELKETA ARAUDI OROKORREAN** adierazitakoarekin osatuko dira.

ONESPENA

Araudi hau Gipuzkoako Eskubaloi Federazioaren Ohiko Batzarrean onartu zen, 2024ko uztailaren 18an.

ERANSKINA

Kirol-eskubideak dituzten gizonezkoen taldeen zerrenda:

- 1 FAGOR PROFESSIONAL ALOÑA MENDI K.E.**
- 2 ORDIZIA SIGLO XX PLATER PRESTATUAK**
- 3 SORALUCE B.K.E.**
- 4 DONE PEDRO HONDARRIBIA BIDASOA**
- 5 UROLA E.K. LAZTIMENDI**
- 6 MUGARRI INGOU ARRASATE**
- 7 MEK EIBAR ESKUBALOAIA B**
- 8 DECOTEXTIL EUSKADI DONIBANE**
- 9 URNIETA ARTOLA HARATEGIA**
- 10 ARITZBATALDE TABERNA Z.K.E.**
- 11 EGIA KOSKO TABERNA**
- 12 TXINGUDI GOIBAR**

Kirol-eskubideak dituzten emakumezkoen taldeen zerrenda (Lurraldeko bigarren mailako kategorian izena eman duten taldeen kopurua 6 baino gutxiago bada, talde bakarrean jokatuko da):

- 1 TXINGUDI ZUBIEDER**
- 2 ZUHEGAN ORIO ERAGIN**
- 3 URBIL-USURBIL K.E.**
- 4 SAIEKO MON PAPERDENDA**
- 5 URNIETA QUEL ABOGADOS**
- 6 ALOÑA MENDI**
- 7 BQD BIDAIK PULPO E.K.**
- 8 TOLOSA C.F. ESKUBALOAIA**
- 9 MUNTARPE KAIALDEA**
- 10 ORDIZIA BIOD2.COM**